





## Bizkarroia mihi

Mihi bitxia du arrain honek; bi begi eta ahoa dituen mihia. Izan ere, krustazeo bat dauka mihiaren lekuan: *Cymothoa exigua* isopodoa.

Krustazeo isopodoen artean hainbat dira bizkarroi-estrategia hartu dutenak, baina *C. exigua* da, agian, bitxiena. Zakatzetatik sartu eta arrainaren mihiari heltzen dio; eta haren odoletik edaten hasten da. Mihia elikatu behar lukeen odolak bizkarroia elikatzen du, eta, mihia, elikagairik gabe, atrofiatu egiten da, ia desagertu arte. Bizkarroia mihiaren oinarriko muskuluari helduta gelditzen da, ordezko mihi bihurturik.

Kanpotik etorritako mihi berriak, aurrekoak betetzen zuen funtzio bera betetzen du. Eta, itxuraz, ez dio bestelako kalterik eragiten arrainari.